

MERKATARITZA-INDIZEA AZALERA HANDIETAN ETA ELIKADURA-KATE HANDIETAN. 2024ko ABUZTUA


Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 1,0 gehitu dira 2024ko abuztuan

Aurreko hilaren aldean salmentek ez dute aldaketa esanguratsurik izan (% 0,0)

Eustatek landutako datuen arabera, 2024ko abuztuan, prezio konstanteetan, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 1,0 gehitu ziren aurreko urteko hil beraren aldean.

2024ko uztailarekin alderatuta, prezio konstanteetako salmentak ez dira aldatu.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Salmentak hil artean % 0,4 gehitu dira *Elikaduraren* sektorean eta % 0,8 jaitsi dira *Gainerako Produktuen* sektorean. Urte artean, 2024ko abuztuan eta 2023ko abuztuan, prezio finkoetako salmentak % 1,6 igo dira *Elikaduran*, eta % 0,1 jaitsi *Gainerako Produktuetan*.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). Abuztua 2024

	Prezio finkoak		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	1,0	0,0	-0,2
Araba/Álava	1,7	-0,2	-0,3
Bizkaia	0,7	-0,4	-0,5
Gipuzkoa	1,1	0,8	0,4
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Janariak	1,6	0,4	0,5
Gainerako produktuak	-0,1	-0,8	-1,5
ENPLEGU-INDIZEA			
Euskal AE	1,9	0,6	1,4

(p) Behinbehinekoko datuak

m / m-12 Urteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

m / m-1 Hilabeteen arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtarrietik hil korrientera arte metatutako aldiaren urteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean

Data 2024ko irailaren 30a

Iturria: Eustat, Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan (AHEK)

2024ko abuztuan azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak hiru lurralde historikoetan gehitu ziren urte arteko terminoetan eta prezio finkoetan: % 1,7 Araban, % 0,7 Bizkaian eta % 1,1 Gipuzkoan.

Aurreko hilaren, hau da, 2024ko uztailaren aldean, salmentek % 0,8 egin dute gora Gipuzkoan, eta Bizkaian eta Araban % 0,4 eta % 0,2 egin dute behera, hurrenez hurren.

Azkenik, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako langile okupatuak % 1,9 gehitu dira 2023ko abuztuaren aldean. Hil arteko datuei dagokienez, indizeak % 0,6ko igoera izan du.

2024ko lehenengo zortzi hilabeteetan metatutako aldiari, salmenten jaitsiera metatua % 0,2koa izan da Euskal AE osoan. Gipuzkoan hazkundera % 0,4koa izan da, aitzitik, Bizkaian % 0,5 jaitsi da eta Araban % 0,3.

Elikaduran, salmenten metatuak % 0,5eko igoera izan du aurten, eta Gainerako Produktuetan, berriz, aldakuntza metatua % 1,5 jaitsi da.

INFORMAZIO-OHARRA

Urte arteko aldakuntzak egutegiaren eraginak zuzendutako serieetan oinarrituta kalkulatu dira, eta hil arteko aldakuntzak urtarokotasunik gabeko serieetan oinarrituta.

Eustatek eskerrak eman dizkie azalera handietako eta elikadura-kate handietako merkataritzaren indizea egiten lagundu duten establezimendu guztiei. Hilabete honetako indizea **% 96,87ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62